

Piranesi

Ikasleek bideo hauek ikusiko dituzte Gabonetako oporretan:

- COSMOLEARNING. *History of Arch Lecture 41 The Picturesque* [linean]. 2017-08-22. [Kontsulta: 23-11-17]. Erabilgarri, hemen: <https://www.youtube.com/watch?v=XgDGp1oENE&t=1259s>. Batez ere 22 min 44 s-tik aurrera jarri behar da arreta.
- COSMOLEARNING. *History of Arch Lecture 39 England Hawksmoor and Vanbrugh* [linean]. 2017-08-22. [Kontsulta: 23-11-17]. Erabilgarri, hemen: <https://www.youtube.com/watch?v=9LxDtWJvbmC>. Batez ere Hawksmoori dagokion atalean erreparatu behar da.

Ikasleek berariazko kapitulu batzuk irakurriko dituzte Antón Capitel idazlearen liburu honetatik:

- CAPITEL, Antón: *Londres, ciudad disfrazada. La arquitectura en la formación del carácter de la capital británica*. Abada editores, 2013

Kapituluak hauek dira (64-89 or.):

- 3.3 Las iglesias londinenses de Hawksmoor
- 3.4
- 3.5. Christ Church
- 3.6. St George Bloomsbury
- 3.7. St Mary Woolnoth

Hiru ikaslek aurkeztu beharko dute edukia, hilaren 10ean; 9an aukeratuko dugu nor izango diren.

Bitxia da, baina, Giovanni Battista Piranesi arkitektoari buruzko lan bat egiteko, Nicholas Hawksmoor arkitekto ingelesaren gaineko teoria batera joko dugu.

Harrigarria bada ere, erromatar baten arkitektura azaltzen laguntzeko, arkitektura anglikanora joko dugu; zehazki, anglikanoek Aita Santuaren menpeko Erromatik independentzia lortu nahian sortu zituzten eliza berrietara.

Hawksmoor eta Piranesi ez ziren arkitekto garaikideak ere izan: lehenengoa “barroko” ingelesaren parte izan zen, eta bigarrena, berriz, “neoklasizismo eta pintoreskismo” erromatarrarena (baldin eta bai bata eta bai bestea sailkatzeko modurik badago). Hala ere, ez da guztiz burugabea bi sortzaile hain xeble eta eszentriko biltzeko intuizioa.

Izan ere, horixe egiaztatuko dugu Hawksmooren elizetako konposizio-sistemak aztertzean: sistema horiek aparteko trebetasuna erakusten dute **nahiko kontrako edota erabat kontrako** kontzeptuen sintesia lortzeko. Muturreko adibide gisa, St George Bloomsbury eliza aipa dezakegu: bertan, luzetarako ordena bat, zeharkako egitura bat, eta, aldi berean, ordena zentral bat bateratzeko gai da Hawksmoor.

Argi dago interes handia duela guretzat –etxe-barruen diseinatzaileak izanda– barne-espazio horiek konposizio-estrategia horretatik aztertzeak. Bestalde, honi ere erreparatuko diogu: nola egiten duen lan kanpo-aldeetan Hawksmoorek kontrako elementuen

Piranesi

El alumnado verá estos videos en las vacaciones de navidad:

- COSMOLEARNING (22 de agosto de 2017). *History of Arch Lecture 41 The Picturesque* [Video]. [Consultado el 17-11-23] <https://www.youtube.com/watch?v=XgDGp1oENE&t=1259s>. Sobre todo hay que prestar atención a partir de 22 min 44 s.
- COSMOLEARNING (22 de agosto de 2017). *History of Arch Lecture 39 England Hawksmoor and Vanbrugh* [Video]. [Consultado el 17-11-23] <https://www.youtube.com/watch?v=9LxDtWJvbmC>. Sobre todo hay que incidir en lo concerniente a Hawksmoor.

El alumnado leerá unos capítulos específicos del siguiente libro de Antón Capitel:

- CAPITEL, Antón: *Londres, ciudad disfrazada. La arquitectura en la formación del carácter de la capital británica*. Abada editores, 2013

Los capítulos son (págs. 64-68):

- 3.3 Las iglesias londinenses de Hawksmoor
- 3.4
- 3.5. Christ Church
- 3.6. St George Bloomsbury
- 3.7. St Mary Woolnoth

Tres alumnos/as presentarán el contenido el día 10 de enero. Se elegirán el día 9.

Es curioso, pero para realizar un trabajo sobre Giovanni Battista Piranesi, vamos a incluir también cierta teoría relativa al arquitecto inglés Nicholas Hawksmoor.

Curiosamente, para ayudar a explicar a un romano, vamos a acudir específicamente al estudio de las nuevas iglesias con las que los anglicanos trataron de crear una arquitectura anglicana que intentaba independizarse de la Roma papal.

Piranesi y Hawksmoor ni siquiera fueron arquitectos coetáneos: el primero perteneció al ‘barroco’ inglés y el segundo, en cambio, al ‘neoclasicismo y pintoresquismo’ romano (si es que de alguna forma a uno y a otro se les puede clasificar). Sin embargo, la intuición de aproximar a dos figuras tan excéntricas y extravagantes no es del todo descabellada.

Así lo comprobaremos al estudiar los sistemas compositivos de las iglesias de Hawksmoor. Estos muestran una habilidad sobresaliente para la síntesis de conceptos **contrarios y, hasta incluso, opuestos**. Como ejemplo extremo, en la iglesia St George Bloomsbury, Hawksmoor es capaz de aunar un orden longitudinal, otro transversal y a la vez otro central.

Es evidente el interés que para nosotros/as (diseñadores/as de interior) tiene el estudio de dichos espacios interiores desde esta estrategia compositiva. No obstante, atenderemos también a cómo Hawksmoor trabaja en sus exteriores a partir de la misma síntesis de elementos contrarios.

sintesi beretik abiatuta.

Izan ere, Hawksmoor aztertuko dugu dokumentu teoriko bat aurkitu dugulako (Capitel, 2013) historiografiaren ikuspuntutik ez ezik metodologiaren eta proiektuaren ikuspuntutik ere oso ondo xehatuta dagoena.

Capitelen deskribapenek konposizio-sistemak eta -estrategiak analizatzeko eman diguten ezagutza aprobetxatuz, Piranesik diseinatu zituen *Campus Martius Romano*ko oinplanoak estudiantuko ditugu:

PIRANESI, Giovanni Battista. *Ichnographia Campi Martii antiquae urbis*. Istituto Centrale per la Grafica. Roma, 2020-2023. [Kontsulta: 23-11-17]. Erabilgarri, hemen: https://www.calcografica.it/stampe/inventario.php?id=S-CL2407_19088

Ikasleek oinplano horiek aztertuko dituzte, eta ahalik eta konposizio-sistema eta -baliabide gehienak bildu beharko dituzte.

Gainera, krokis grafikoak marraztu beharko dituzte, esku hutsez, eta, haietan, esplizituki irudikatuko dute nola konposatzen diren Piranesik Antzinarotik hartzen dituen elementuak eta arkitekturak.

Marrazkiak norberarena izan beharko du, eskematikoa eta kontzeptuala, eta bereizi egin beharko da Piranesiren oinplanoen marrazkietatik. Ez dira oinplanoak berriro marraztuko: azpian egon daitezke, analisia ulertzen laguntzeko kalko edo erreferentzia gisa, baina ez dira inoiz errepikatuko edo kopiatuko.

Ariketa honek balio du erreparasatu egiten ditu lehen unitatean —Garches-Rowe-Dwelling— landu diren gaitasan analitikoak. Aldi berean, aurreratu egiten ditu Proiektuak II ikasgaiaren lehen ariketan landuko ditugun gai diagramatikoak.

Berebiziko interesa du ariketa honek gero egingo ditugun proiektuak garatzeko. Izan ere, halaxe dio *History of Arch Lecture 41 The Picturesque* bideoak 26. minutuaren inguruan: "Batzuek diote Louis Kahn arkitektoak *Campus Martius*aren **xafla grabatu bat** zuela bere mahai-gainaren atzean. Zer egin ez zekien bakoitzean, diotenez, *Campus Martius*era begira geratzen zen eta ideia bat ateratzen zuen handik". (Irakaslearen itzulpena)

Lana nola eta noiz entregatu

- A4 formatuan
- Data: Ohiko ebaluazioaren azterketaren egun berean, azterketa baino lehen edo Moodlen, egunean zehar.
- Lagun biko talde-lana: 2023401XX_UrliaGARTZIA_SandiaGARTZIA_Piranesi.pdf

Ebaluazio-irizpideak

De hecho, acudimos a Hawksmoor debido a que encontramos un documento teórico (Capitel, 2013) muy bien desgranado desde el punto de vista proyectual y metodológico, y no únicamente historiográfico.

Aprovechando el conocimiento que las descripciones de Capitel nos han dado para analizar los sistemas y estrategias de composición, estudiaremos las plantas del *Campus Martius Romano* creadas por Piranesi:

PIRANESI, GIOVANNI BATTISTA. *Ichnographia Campi Martii antiquae urbis*. Istituto Centrale per la Grafica. Roma, 2020-2023. [Consultado el 17-11-23]. https://www.calcografica.it/stampe/inventario.php?id=S-CL2407_19088

El alumnado analizará dichas plantas y entresacará cuantos más sistemas y recursos compositivos le sean posibles.

Realizará croquis gráficos a mano alzada que expliciten la forma en la que se componen los diferentes elementos y arquitecturas que Piranesi toma de la Antigüedad.

El dibujo debe ser propio, esquemático y conceptual, y se debe distinguir y diferenciar de los dibujos de las plantas realizadas por Piranesi. No hay que volver a dibujar las plantas, éstas pueden estar debajo, a modo de calco o referencia que ayuda a entender el análisis, pero nunca se deben repetir o copiar.

Este ejercicio realiza un repaso de las capacidades analíticas trabajadas en el primer estudio —Garches-Rowe-Dwelling—. A la vez, anticipa las cuestiones diagramáticas que trabajaremos en el primer ejercicio de la asignatura de Proyectos II.

El interés de cara al desarrollo posterior de nuestros proyectos es incuestionable. Ya lo señala el video *History of Arch Lecture 41 The Picturesque* alrededor del minuto 26: "Algunos dicen que el arquitecto Louis Kahn tenía **una plancha grabada** del Campus Martius detrás de su escritorio. Cada vez que no sabía lo que hacer, se dice que se quedaba mirando al Campus Martius y sacaba una idea de ahí". (Traducción del profesor/a)

Formato y plazo de entrega

- Formato A4
- Fecha: Misma fecha del examen de la ordinaria, antes del examen o en Moodle a lo largo del día.
- Trabajo en grupos de dos personas: 202401XX_FulanitoGARCIA_MenganitoGARCIA_Piranesi.pdf

Criterios de evaluación

- *Campus Martiusen* konposizio-estrategiak zein diren deduzitzea: zenbat eta gehiago, hobeto. (EI. 0101)
- Konposizioei loturiko kontuak grafikoki analizatzea eta baliabide grafikoa era metodologikoan ulertzea. (EI. 0101, 0303)
- Konposizio-estrategia eta -kontzeptuak grafikoki era argian komunikatzea. (EI. 0101, 0501)
- Diagramaren eta marrazkiaren edukiarekin eta helburuarekin bat datorren irudikatze-baliabidea eta teknika erabiltzea. (EI. 0101, 0303, 0501)
- Esku hutsez aise aritzea. (EI. 0501, 0303)
- Kalitatea lortzea aurkezpenean, eginduran eta akaberan (Proiektuak I ikasgaiaren ariketa guztietan azaldutako irizpideen arabera). (EI. 0502)
- A4a era orokorrean konposatzea. (EI. 0502)
Egindako lan diagramatikoarekin bat datorren errotulazio aproposa eta koherentea erabiltzea: izenak aurretik kokatzea, letra ez oso handiarekin, beheko eskuineko aldean ondo errotulatuta. (EI. 0502)

Konpetentziak

- *Campus Martiusen* konposizio-estrategiak zein diren deduzitzea era sortzaile eta intuitiboan, neure proiektuen konposizio-irizpideak deduzitzeko modutik oso bestelakoa ez den moduan, etorkizunean egingo diren proiektuetan aplikatzeko. (D. 0101, 0303)
- Konposizio-gaiak modu analitikoan eta grafikoa analizatzea irudikapena proiektuaren baliabide metodologiko modura ulertzeko asmoz. (D. 0101, 0303)
- Konposizio-kontzeptuak modu grafikoan irudikatzea eta komunikatzea gure proiektuen berri emateko asmoz eta era berean proiektuaren eduki kontzeptualak modu grafikoan ulertzen ikasteko. (D. 0101, 0501)
- **Zirriborroak, krokisak** eta aurreproiektuak (kasu honetan, krokisak) irudikatzea, modu profesionalean eta esku hutsez, ideien komunikazioa arintzeko intentzioarekin. (D. 0501, 0502)
- Esku hutsaren trebetasuna garatzea, modu espontaneoan, eta teknika hori erabiltzea gure proiektuak adierazteko eta, aldi berean, kontzebitzeko (D. 0501, 0303)

- Deducir las estrategias de composición del Campus Martius, cuantas más mejor. (CE. 0101)
- Analizar gráficamente las cuestiones compositivas y comprender la herramienta gráfica de forma metodológica. (CE. 0101, 0303)
- Comunicar las estrategias y conceptos compositivos de manera clara de forma gráfica. (CE. 0101, 0501)
- Utilizar la herramienta y técnica de representación acorde al contenido y objetivo del diagrama y dibujo. (CE. 0101, 0303, 0501)
- Ejercitar con soltura la mano alzada. (CE. 0501, 0303)
- Conseguir calidad en la presentación, factura y acabados (según los criterios expuestos en todos los ejercicios de Proyectos I). (CE. 0502)
- Componer el A4 de forma general. (CE. 0101, 0501)
Utilizar una rotulación adecuada y coherente con el trabajo diagramático realizado. Situar los nombres por delante, con letra no muy grande. Bien rotulados en el extremo inferior derecho. (CEI. 0502)

Competencias

- Deducir las estrategias de composición del Campus Marzius, de forma creativa e intuitiva, no muy diferente al modo en el que deduzco los criterios de composición de mis propios proyectos, para extraer su aplicación para la realización de proyectos futuros. (D. 0101, 0303)
- Analizar las cuestiones compositivas, de forma analítica y gráfica, con la intención de comprender la representación como herramienta metodológica del proyecto. (D. 0101, 0303)
- Representar y comunicar los conceptos compositivos de manera gráfica, de cara a comunicar nuestros proyectos, pero también, para aprender a comprender de forma gráfica los contenidos conceptuales del proyecto. (D. 0101, 0501)
- Representar los **bosquejos, croquis** y anteproyectos (en este caso bosquejos), de forma profesional y a mano alzada, con la intención de agilizar la comunicación de las ideas. (D. 0501, 0502)
- Liberar la mano alzada, de manera espontánea, de cara a utilizarlo como medio para expresar y, a la vez, concebir nuestros proyectos. (D. 0501, 0303)

